



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an

46 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zentzuzkoa izan den eta nola banatuko den ezartzen duena (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, foru parlamentariaa Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko Lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan (16. or.).
- Mozioa, foru parlamentaria Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituzio kontraketarako errekurtsioa jarri izanarekin Bardeako natur parkea handitzearen aurka (17. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan (18. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzen bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan (20. or.).
- Mozioa, foru parlamentaria Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Mendillorri IV ikastetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan (21. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat Estatuko gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioek 1997an izaniko soldata igoeraren aurka errekurtsioa jarri izanarekin (23. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruzkoa (25. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, parke teknologikoa deritzanak azkenean izanen duen kokalekuari buruzkoa (25. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruzkoa, hezkuntza-maila eta hizkuntza-ereduka (26. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruzkoa (27. or.).
- Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruzkoa (27. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erreserbatzeari buruzkoa (28. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Etxeko indarkeriari eta bikote-kideen arteko indarkeriari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

Etxeko indarkeria eta bikotekideen arteko arazo publikoa da, eta hari aurrea hartzeko eta saihesteko baliabide guztiekin egin behar zaio aurre. Horretarako, zuzenbide penalararen arloan jadanik existitzen diren erantzunez eta biktima diren edo izan daitezkeen pertsonen eskueran administrazioak jartzen dituen bitartekoez gain, zuzenbide zibilak ere prebentziorako erantzunak taxutu behar ditu, indarkeria-mota hau saihesteko.

Zuzenbide zibilaren esparruan, kalterik izan aurretik jarduteko aukera dagoenez gero, balizko indarkeria-kasu baten hasierako eta are aurreko faseetan jardun daiteke, banantze- edo dibortzio-prozesu bati loturik edo lotu gabe egon daitezkeen zuzenbide penaleko erantzun bat eman ahal izatea eragotzi gabe.

Xedea da bai bikotea, bai seme-alabak edo gurasoak edo bestelako ahaide nahiz menpeko pertsonak babestea, hala elkarrekin bizi diren bikotekideak nola elkarrekin bizitzeari utzi diotena, baita elkarrekin bizi gabe lotura afektiboa izan duten bikotekideak ere.

Ezarritako neurriak bi fasetan banatzen dira. Lehena, indarkeria-egoera berehala amaitzeko xedea duten presako neurriei dagokiena, eta, bigarrena, zuhurtasun-neurriak hartzeko, gehienez hiru hilabeteko eperako, zeinean erabakiko baita, beharrezkoa izanez gero, banantze- ala dibortzio-prozesu bat izapidatuko den –edo, bestelako bizikidetasun-moduetan, mantenua emateko modua, horretarako beharturik daudenean, guraso eta seme-alabarik badago– edo, elkarrekin bizi ez direnen kasuan, aldi baterako urruntze-neurriak soilik hartuko diren.

Delitu edo falta jadanik egina izanez gero egon daitezkeen ekintza penalak baldintzatu gabe ezarriko dira neurri zibil horiek.

Araubide hau zuzenbide zibileko eskumenen esparrukoa da, eta, zehatza izateagatik, prozedura-arauak ezartzera behartzen du. Legitimazioa ahalik zabalena izanen da, oinarrizko eskubideak ukitzen direlako, eta ofizios jardun ahalko da. Beraz, prozedura zibil bat ezarriko da, eta honako printzipio hauetan oinarriturik egonen da: akzio publikoa, doakoa, arartegabetasuna, azkartasuna eta eraginkortasuna. Zuhurtasun-neurriak denboran zehar mailakatuak eta kasu zehatzeko beharrezkoak izanen ditu.

I. KAPITULUA

Etxean sartzeko debekua eta bestelako neurri berehalakoak

1. artikulua. Ekintzak hastea.

1.- Pertsona batek indarkeria fisikoa nahiz psikikoa, mehatxuak edo lesio-arrisku balizko eta arrazoizkoa jasan badu ezkontide, guraso, seme edo alabarengandik, edo bikotekide, ahaide edo menpeko izateagatik bizikide duen pertsonarengandik, bidezko diren ekintza penalak has ditzake, eta epaitegi zibilaria eska diezioke hurrengo artikulua ezartzen dituen berehalako neurrietatik bat edo batzuk erabaki ditzala.

2.- Aipaturiko ekintza aitak edo amak hasi ahalko du, indarkeriak bere seme-alabak kalteztzen baditu. Halaber, lanbideari dagozkion arrazoiengatik edo kalteturiko pertsonetikiko hurbiltasunagatik indarkeriaren edo arriskuaren berri duen edozein pertsona edo erakundek ere hasi ahalko du.

2. artikulua. Neurriak hartzea.

1.- Hartu ahalko diren berehalako neurriak hauek dira:

a) Erasotzaileari eraso jasan duenaren etxean sartzeko debekatzea. Ondorio hauetarako, akzio zibila eraso jasan duenak hasi ez duenean ere, neurri hori hartzea erabaki ahalko da haren borondatea zein den kontuan hartu gabe. Erasotzailea etxearen jabe edo errentamenduaren titular izateak edo hark etxea beste edozein tituluren ondorioz edukitzeak ez du eraginik izanzen neurri hori hartzean. Kasu horretan, eraso jasan duenari bere etxea mantentzeko kopuru jakin bat ordain dakiola erabaki ahalko da; kopuru hori zehaztean, kontuan hartuko da etxeko gastuei aurre egiteko dirusarrera guztiak erasotzailearengandik heltzen ote diren, eta, biengandik heltzen badira, bakoitzak eginiko ekarpenaren proportzioaren arabera zehaztuko da.

b) Lesio edo mehatxuak jasan dituen bizi den eta hark ikasi edo lan egiten duen lekuetatik urruntzea erasotzailea.

c) Erasotzaileari debekatzea eraso jasan duenarekin edonola ere harremanetan jar dadin.

2. Lehen idatz-zatian ezarritako neurriek 10 egun iraunen dute, non eta, epaileak hala erabakita, zuzenketarik egiten ez zaien.

3. artikulua. Etxean sartzeko debeku-neurriaren eraginak.

1.- Etxean sartzeko debekatzen denean, erasotzaileak bere gauza pertsonalak eta behar dituen

lanbide-tresnak jaso ahalko ditu, baina etxeko giltzak utzi egin beharko ditu.

2.- Erasotzaileak helbide berriari buruzko datuak adierazi beharko dizkio organo judizialari; halaber, bere jardueren berri alde aurretik ematera behartua egonen da. Organo judizialak, helburu horixe duela, erasotzailea berak adierazi dituen toki eta telefonoetan ote dagoen ikertu ahalko du.

3.- Erasoa jasan duenak etxea bere eskueran izaten segituko du, baita bertan ez bizitzea erabakitzen badu ere, eta erasotzaileari han sartzeko debekua eutsi egiten zaio; era berean, eraso jasan duena eta, etxean ez bizitzea erabakitzen duenean, berarekin bizi diren seme-alabak ere, berariazko zentro batean sar daitezzen ziurtatuko da.

4.- Bienak diren seme-alabak baldin badaude, eraso jasan duenarekin egonen dira, eta hark lortuko du, behin-behinekoz, zaintza-eskubidea.

4. artikulua. Botereak errebokatzea.

2. artikulua ezarritako neurrietakoren bat hartzeak berarekin ekartzen du eraso jasan duenak erasotzaileari egiletsitako botereak automatikoki errebokatzea.

5. artikulua. Laguntza eskatzea.

Erasoa jasan duenak, erabakitako neurri judizialak ez direla bete edo ez betetzearen arriskua ikusirik, uneoro eskatu ahalko du indarkerialdiak saihesteko segurtasun indar eta gorputzen laguntza, ezertan galarazi gabe neurriak bete ez izateak ekar ditzakeen ondorio penalak.

II. KAPITULUA

Prozedura

6. artikulua. Presako prozedura

1.- Lege honetako 2. artikuluan ezarritako neurriak hartzeko eskaera aurkeztu behar da eraso edo mehatxu bat jasan izan ondorengo edo jasan ahal izan dela ondorioztarazten duten ekintzak gertatu ondorengo 72 orduetan, eta, pertsona erasotzailea non dagoen jakiteko, laneko helbidea edo telefono nahiz fax zenbakia eta hura azkar aurkitu ahal izateko beste edozein datu adierazi behar da.

2.- Organo judizialean, neurri horiek har daitezten eskatzeko eredu normalizatu bat egonen da.

3.- Aipaturiko neurriak hartzeko auzitegi eskuduna bi pertsonen helbide komunari edo eraso jasan duen pertsonaren helbideari –helbide hori komuna ez bada– dagokion lehen auzialdiko epaitegi izanzen da.

4.- Epaileak, eskaera jaso ondoren eta eraso jasan duenak aurkezturiko gertakariak, dokumentuak eta testigantzak, kasua bada, aztertu ondoren, 2. artikuluan ezarritako neurrietakoren bat hartu ahalko du 24 orduko epean, eta ematen duen ebazpena berehalakoan izanen da exekuti-boa.

5.- Epaitegiak berehalakoan jakinaraziko dio emandako ebazpena erasotzaileari, lege honetako 2. artikuluan ezarritako neurrietakoren bat hartzeko eskaeran adierazitako lekuetako edozeinetan, eta neurrien indarraldian zehar haien aurka egoki jotzen dituen alegazioak agerraldi bidez egin ditzakeela esanen zaio.

6.- Pertsona erasotzailea neurrien aurka baldin badago, epaileak aurkako jarrera hori bidezkoa ote den ebatzi beharko du, eta hartutako neurriei eustea edo haiek errebokatzea erabaki beharko du.

7.- Aurkako jarrerarik baldin badago, eskaturiko neurriak ukatzen dituen ebazpenaren eta haiei eusten dienaren aurka kexa errekurtsua baizik ez da aurkezterik izanen, legedi prozesal indardunak ezarritako moduan. Gertakaririk edo mehatxurik berriro izanez gero, neurriak berriro ere har daitezzen eskatu ahalko da.

7. artikulua. Prozedura sumariala.

Lege honetako 2. artikuluan ezarritako neurrietakoren bat har dadila erabakitzen duen ebazpena eman eta hurrengo hamar egunetan, prozedura sumarial bat izapidatuko da, indarraldia gehienez ere hiru hilabeteko epera luzatuko den ala ez erabakitzeko. Epaileak bi alderdiak eta ukituriko per-

tsonekin daudenen testigantzak entzun beharko ditu; hori guztia, judizio bakarrean. Eraso jasan duenak ez badio neurri-eskaerari eusten, neurri horiek amaitu egingen dira, non eta epaileak, eskueran dituen datuak ikusirik, neurrien indarraldia luzatzea ofizioz erabakitzen ez duen. Neurri-eskaerari eusten bazaio, indarraldia luzatzea erabaki ahalko da, ebazpen arrazoitu bidez, honako baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Indarkeriazko ekintzak egotea; hain zuzen ere, tratu txar fisiko edo psikikoak edo mehatxuak.

b) Indarkeriaren ondorioz, aurrerantzean elkarrekin bizitzen egotea ezinezkoa dela ikustea eta eraso jasan duenak etxebizitza edo helbide egokirik ez edukitzea, erabakitako neurria etxean sartzeko debekua denean.

8. artikulua. Neurrien amaiera.

Hartutako neurriak amaituko dira adierazitako mugaeguna igaro ondoren, non eta denbora-epe horretan zehar behin-behineko neurrietarako eskaera bat edo banantze nahiz dibortziorako demanda judizial bat aurkeztu ez den, halako moldez non, horien ondorioz, aipaturiko neurriak erabaki eta horri buruzko probidentzia ematen den.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari eta kontseilari eskudunari esku ematen zaie foru lege hau erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen. Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzen duena

ZIOEN AZALPENA

Toki entitateen autonomia Konstituzioko printzipio bat da. Konstituzioko 140 eta 142. artikuluek udalen autonomia eta askatasun finantzarioaren arteko lotura egiten dute, toki entitateek legeak euren ardurapean ipintzen dituen eginkizunak bete ahal izan ditzaten.

Eguneroko errealitateak, Konstituzioaren xedapenek eta LORAFNAK egiten dituen aipamenei ezin izan dute oraindik lotura-puntu bat aurkitu, eskumen-banaketari eta baliabide-esleipenari

dagokienez iraunkortasuna eta egonkortasuna lortzearen ikuspegitik eginiko eztabaida bat hasi eta bukatu ahal izateko. Aipaturiko ikuspegitik, toki entitateen nahikotasun finantzarioa eta eskumenen kudeaketa egokia ez ezik, udal bizitzako denbora-aurreikuspen logikoa ere lortu beharko litza-teke.

Nafarroako udalek gaur egun eta datozen urteetan izanen dituzten beharriak erantzun behar zaie, baina, aldi berean, eskumenak banatu eta baliabideak esleitzeko araudi bat ezarri behar da, “herriarrak hurbilen daukan administrazioaren” jardueraren nolakotasuna behin betiko ezartzeko.

Beraz, lege proposamen honen bidez hauxe lortu nahi da:

1) Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzea.

2) Toki itun bat prestatzeko prozedura bat abiaraztea, zeinak, besteak beste, aurreko puntuaren indarraldiaren ondorengoa izan beharko baitu.

Nafarroan toki ituna beharrezkoa dela adierazi izan da Foru Parlamentuan izandako zenbait ekimenetan. Itun hori eskatzea alderdi bakoitzaren orientazio politikoaz haratago doa; izan ere, horixe bera eskatzen du Espainiako Udala eta Probintzien Federazioak; zehazki, aurtengo lehen hila-beteetan, bertako batzorde exekutiboak esan du beharrezkoa dela bultzada ematea autonomia erkidegoetako toki itunei. Horrekin batera, gogoan izan behar da 2000ko abenduan Toki Entitateen Batzordea eratu dela Senatuan.

Kontuan izanik hiri-ereduen bilakaera bera euren jatorritik hasita; hiriguneen arteko ezberdintasunak tamainari eta berezitasunei dagokienez; eskualde-izaerako erakundeekiko uneoroko menpekotasun finantzarioa, herriarregandik hurbil egotea; toki entitateek kohesio, egituratze eta parte-hartze sozialerako sareak osatzen dituztela; bai eta eskumen-eskaera eta Konstituzioak aitortzen dien izaera bera, gomendagarria da toki itunaren ildotik sakontzea, administrazioa arrazionalizatzeko bitarteko bakartzat hartuz. Funtsean, esleituriko eskumen eta baliabide ekonomikoak aldatzeko, toki entitateen boterea handitzeko eta

administrazio-lana arrazionalizatzeko balio izan behar du.

Nafarroako toki ituna honako hauetan oinarritu daiteke:

1. Toki Autonomiari buruzko Europako Gutunean; Europako Kontseiluko hitzarmena, 1980tik 1985era bitartean Europako Eskualde eta Toki Botereen Konferentzia (gaur egun Kongresu) iraunkorra delakoan egina. Espainiak 1985ean sinatu zuen.

2. Nazioarteko esperientzia alderatuan; bereziki, Europakoan.

3. Subsidiarioritasun printzipioan.

4. Ogasun publikoari eta administrazioaren kalitateari buruzko zenbait testu eta lanetan.

5. Espainiako Konstituzioak eta Foru Hobetzeak egiten duten aitopen instituzionalak eskaintzen digun aukera juridikoan.

Herritarrek euren arazoak hurbiltasun eta parte-hartze handienaz konpondu ahal izateko daukaten oinarritzko administrazio-maila udalek osaturikoa da. Udalek herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta herri bateko biztanle guztiei funtsezko zerbitzuak helarazteko daukaten ahalmenari buruzko zalantzarik ez dago.

Politikaren, eskumenen eta finantzen ikuspegitik, udaletan urrats bat eman beharra dago, eta hori toki itunaren bitartez egin behar da. Funtsezko zerbitzuak emateko hurbileneko administrazioa bilatzea, tarteko zerbitzuak eman ditzaten era guztietako administrazio-organoen bidez eskualdeak indartzea eta autonomi erkidegoaren eskumenekoak diren gainerako zerbitzuen plangintza lortzeko, egokiak diren akordio instituzional eta politikoak sinatu beharko dira, beharizan guztiei erantzuna emanez haien ezarpena eta etorkizuneko bideragarritasuna bermatzeko.

Nafarroako toki itunaren azken xedeak toki-mailako administrazio publikoak politikaren, eskumenen eta finantzen ikuspegitik indartzea izan behar du. Halaber, gure erkidegoko arazo historiko batzuetarako (hala nola toki entitateen mapa arrazionalizatzea) soluzioak bilatu behar ditu, eta toki entitateen eskumenekoak diren arazoak udalerrien lurraldea gainditzen duten esparruetan konpontzeko udalez gaindiko enteak egotearen beharizanari aurre egin behar diote.

1978ko Konstituzioak, 140. artikuluan, udalen autonomia bermatzen du, eta 142. artikuluan xedatzen du toki ogasunek behar adina baliabide izan beharko dituztela legeak esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko; nagusiki, euren tributuetatik

etik eta Estatuaren nahiz autonomia erkidegoen tributuetan parte hartzetik lortuko dituzte.

Uztailaren 2ko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeak, 259. artikuluan, xedatzen du, bere eskumenak erabiltzeko eta Nafarroako toki entitateek dagozkien helburuak lortzeko, toki ogasunak behar dituzten baliabideez hornituko direla. Baliabide horiek Toki Ogasunari buruzko Foru Legearen bidez arautuko direla, Nafarroako toki araubidearen alorra den aldetik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikuluan aurreikusi bezala.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 260. eta 261. C artikuluek xedatzen dute toki ogasunek Foru Komunitateko tributuetan parte hartuko dutela.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123.1 artikulua xedatzen du toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan izanen duten parte hartzea aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan zehaztuko dela, eta zenbait urtetarako ezarri ahalko dela.

Ekitaldi bakoitzerako esleituriko parte-hartzearen zenbatekoa honela banatuko da:

- a) Transferentzia arruntak
- b) Kapital transferentziak
- c) Bestelako laguntzak

Transferentzia arruntetarako parte-hartzearen zenbatekoa justizia eta proportzionaltasuna aintzat hartu beharko dituen formula baten bitartez banatuko da udal eta kontzejuen artean.

Udal agintaldi bakoitzeko lehen urteko azken hiruhilekoan, Nafarroako Gobernuak, Toki Araubideari buruzko Foru Batzordeak txostena egin ondoren, arau-proiektu bat bidaliko du Nafarroako Parlamentura kasuan kasuko ekitaldirako aurrekontu orokorreari buruzkoarekin batera, eta proiektu horrek honako hauek bilduko ditu:

- Hurrengo lau aurrekontualdian Nafarroako zergetan Toki Ogasunek parte hartzeko fondoaren zenbatekoa.

- Udal agintaldiko lau aurrekontualdian aipaturiko fondoa banatzeko formula, artikulua honetako 3. idatz-zatian ezarritakoari jarraituz.

Indardun legediak ezarritakoa betez, foru lege honen indarraldiak 2002, 2003 eta 2004. urteak hartuko ditu.

Foru lege honek, lehenik, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte har-

tzeko fondoaren zenbateko osoa finkatzen du, eta, hurrena, zenbateko hori transferentzia arrunt eta bestelako laguntzen kontzeptuan handitzeko sistema, bat etorriko dena foru ogasunaren tributu bidezko dirusarrerak handitzen direneko ehuneko berarekin, Estatuaren karga orokorretarako ekarpena kendu ondoren, eta ez da Nafarroako urteko K.P.I.a baino txikiagoa izanen.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, ekitaldi bakoitzerako izendatutako parte-hartzearen zenbatekoa transferentzia arruntan, kapital transferentzien eta bestelako laguntzen bidez banatzen da.

Transferentzia arruntak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123.3 artikuluan xedaturikoarekin bat, udalen eta kontzejuen artean banatuko dira. Banatzeko formulak justizia eta proportzionaltasun irizpideak kontuan hartu behar ditu, aipatu printzipio nagusiak zehazten dituzten zenbait parametrotan oinarriturik.

Zentzu honetan, foru lege honek transferentzia arruntan fondoaren banaketa bat planteatzen du, berdintasun horizontalaren printzipioa aplikatzen duena; horrela, toki entitate bakoitzaren gastu-premien arabera eta haren ahalmen fiskalaren arazua kontra egiten da banaketa, bermatuz, betiere, gehiago jasotzen duela gastu-premia gehiago duenak eta/edo norberaren baliabideak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duenak. Salbuespena bestelako laguntzei dagokiena da; hain zuzen ere, berriazko fondoak formula berezi bati jarraituz banatuko da, gizarte-solidaritatea, lurralde-oreka eta udal-administrazioen mapa politikoaren arrazionalizazioa irizpide gidarizat hartuz.

Banaketa-sistema hiru mailatan egituraturik dago:

1.- Lehenik, Iruñeko Udalari esleipen bat egiten zaio, Iruñeko biztanle-kopuruaren eta gainerako udaletakoaren arteko proportzioaren arabera. Bigarrenik, udalen artean fondoaren gainerakoaren banaketa antolatzen da, eta, azkenik, kontzejuek bere udalari esleitu zaion kopuruan izan beharreko parte-hartzea zehazten da, kontzejua biztanle-kopuruaren arabera.

2.- Bigarren mailari dagokion banaketa-sistema udalari bakoitzerako bi indize lortzean datza; bata gastu-premiei dagokie, eta bestea, ahalmen fiskalari. Horiek zenbatesteko metodoak Nafarroako toki sektoreari buruz eskueran dagoen kontabilitate-informazioari estatistika-prozedurak aplikatuz prestatu dira.

Ahalmen fiskalaren indizeak 0,3135eko ponderazioa dauka; hori da, hain zuzen ere, finantzatu

beharreko gastu arruntan guztizko kopuruaren gain indize horretan ordezkaturiko toki-baliabide ekonomikoen baturak egiten duen ehunekoak. Baliabide horiek hirilur eta landalur kontribuzioak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, herrilurraren balio katastralaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga dira.

Gastu-premien indizea lortzen da toki entitate- etako gastu arruntan eragin handiena daukatela estatistikoki demostratu duten bost aldagaien konbinazio linealetik, horietako bakoitzak gastua azaltzeko duen ahalmenaz ponderaturik. Aldagaiak hauexek dira: entitate bakoitzeko biztanle-kopurua, udal bakoitzeko hirilurraren azalera netoa, 65 urtetik gorako biztanle-kopurua, entitate banakatuaren kopurua eta udal bakoitzean hirigunetik kanpo biztanleria duten entitate banakatuaren kopurua.

3. Hirugarren banaketa-mailak kontzejuen parte-hartzea zehazten du, udalari esleituriko zuzkiduratik abiatuz. Parte-hartze hori kalkulatzeko, udalari esleiturikoa % 30ekin eta udaleko guztizko biztanle-kopuruaren gain kontzejuko biztanleek egiten duten proportzioarekin biderkatzen da.

Parametro horrek adierazten du gaur egungo eskumen-banaketa-rekin kontzejuei dagokien batez besteko gastu-proportzioa.

Orain arte indarra zeukan sistemarekiko haus-tura larria egitea ez da banaketa-formula berriaren helburua; horregatik, beharrezkotzat jo da bi ezaugarri dauzkan trantsizio-prozedura bermeduna ezartzea:

Alde batetik, banaketaren bigarren mailako udalei dagozkien asignazioen koefiziente zuzentzaile bat ezartzen da, populazioaren tamainaren arabera handitzen dena, eta udal bakoitzeko biztanleko 0,00002tan finkatu dena; horrela saihesten dira entitateen tamainaren mailaketa arbitrarioak zekartzan jauzi akatsak.

Bestalde, formula eraginkorragoa izan dadin, kopuruari gutxieneko berme bat aplikatzen zaie.

Bigarren berme hori aurreko hiru mailak aplikatzen zaie. Lehen eta bigarren mailan, udal guztiei urte bakoitzerako gutxienez 2001eko ekitaldian udalek jasotako fondoak bermatzen zaie, 2001ean zehar izan diren ekarpenen emaitzaren arabera. Hirugarren mailan, kontzejuei bakoitzari, lege hau aplikatzen den urte bakoitzerako, gutxienez ere 2001eko ekitaldian jasotako fondoak bermatzen zaio.

Kapital transferentziei dagokienez, euren banaketa 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 2/2000 Foru

Legean ezarri da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 123. artikuluko 4. idatztatian aurreikusitakoari jarraituz.

Fondoa banatzeko azkeneko kapitulari "bestelako laguntzak" deritzo eta bertan sarturik daude Iruñeko Udalari "Iruñeko Hiriburutza Agiria" kontzeptuagatik dagokion zuzkidura, gainerako toki entitateetarako zuzkidura bat, zeina formula orokorrari jarraituz banatzen baitzaie guztiei, berriazko fondo bat, horretarako onetsitako formula baten arabera banaturikoa eta Iruñari aplikatuko ez zaiona, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 72.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko zuzkidura, interes komunak babestu eta sustatzeko osaturiko toki entitateen federazio edo elkarteentzako laguntza ekonomikoetarakoa.

Iruña berriazko fondotik at utzi da, printzipioz; izan ere, kontuan hartu da "Hiriburutza Agiriaren" ondoriozko egoera berezia. Egoera hori lege proposamen honen indarraldia amaitu ondoko toki entitateen behin betiko finantzaketa-sistema taxutzean aztertu beharko da, eskualde-buru diren beste hiri batzuek edo Iruñeko metropoli-esparruaren "hiri-bilbea" osatzen duten herriek partzialki bete litzaketan antzeko eginkizunak aintzat hartuz.

Aipaturiko berriazko fondoa 7. artikulua arautzen du, eta urte bakoitzeko 1.500. milioi pezetako zuzkidura esleitu zaio. Fondo horrek Foru Komunitateko eskualdeen arteko solidaritatea eta egituraketa lortzeko elementu izatea du xede, eta, era berean, toki itunak indarra hartu bitartean toki entitateek jarduteko dauzkaten aukerak hobetzea bilatzen du, trantsizio-epe horretan. Bi xede horiek bateragarri izan daitezten, lurraldeen arteko desberdintasuna eta desoreka gainditzeko irizpide batzuk finkatzen dira, herritarren bizi-baldintzak hobetzen lagunduko duten udal jardueri –hala nola 0tik 3 urtera bitarteko zikloa abiaraztea edo babes ofizialeko etxebizitzetarako lurzorua eskuratzea– lehenetsia emateko. Foru Administrazioak toki administrazioen jarduketetarako dirulaguntzak ematea baino, toki entitateentzat berez gastu-eragile diren jardueretarako diru-ordaina ematea da xedea.

Horrela, gainerako irizpideekin batera, berriazko fondoa esperientzia berritzailea da, eta apustu argi eta garbia egiten du administrazio-zerbitzuak bateratu eta errentagarriago egitearen eta zerbitzu-ematea hobetzearen alde, bakoitza bere gogoz eskualde eta mankomunitateen esparrura biltzeko formulen bitartez, betiere toki autonomia errespetatuz.

Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzekeo lurzorua eskuratzeari dagokionez udaletako diru-bilketak duen errentagarritasun apalak –gizarte-errentagarritasun handia daukala alde batera utzirik– ondorio gisa ekartzen du, batetik, artikuluek jasotzea baldintza hori dela berriazko fondoaren xede diren udal guztietan lehenetsi beharreko irizpidea, eta, bestetik, artikuluek aurreikustea hori Iruñera heda dadila Hiriburutza Agiriaren kontzeptuko urteroko gehikuntzaren arabera kopuruan, Nafarroako Gobernuarekin babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko sinaturiko lankidetzak-hitzarmen zehatz baten bitartez; izan ere, hiri horretan oso urriak dira mota horretako etxebizitzak.

2002tik 2004ra bitartean, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuaren ekimenez, udal eskumen berriak eta horiei aurre egin ahal izateko behar den finantzaketa onetsi beharko ditu, eta horri toki itun deituko zaio.

Legegintza-ekimen hori toki itunerako batzorde zuzentzaileak eginen duen lanaren ondoren gauzatu beharko da. Aipaturiko batzordearen osara eta eginkizunak artikuluetan arauturik daude. Baita foru gobernuari bere proposamena bidaltzeko izanen duen gehieneko epea ere.

Horrela, parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banaketa zehazten dituen araubide honek, 2002tik 2004ra bitarteko urteetarako eta, edozein kasutan, azken urtea baino lehenagorako, bere xede berezkoa betetzeaz gain, aldi berean gure erkidegoko toki entitateen finantza-egonkortasuneko egoera berri eta behin betikoa izan dezaten lortzea bilatzen du.

Halaber, zenbait gobernu denbora-urritasunaren ondorioz toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoak eta banaketa berandu aurkeztu behar izan dituztenez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123.5 artikulua eginkizun denbora-epeen aurreikuspenak errealitate horretara egokitu ahal izateko artikulua hori aldatu beharra dagoela ikusi da, eta horregatik ere aurkeztu da foru lege proposamen hau. Hori agerian geratu zen 1995-1999 eta 1999-2003 hauteskunde-epeetan. Eta, bestalde, kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuaren 2000rako aurrekontuei buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak aurreko foru legean 2000rako aurreikusitako formula luzatu eta zuzkidura gaurkotu zuela. Nafarroako Gobernuak ere, 2001-2003rako zenbateko eta banaketari buruzko foru lege proiektu bat aurkeztu zuen, 2000ren amaiera aldera, 1999ko azken hiruhilekoan aurkeztu beharko zukeen arren.

Nahiz eta onartzen dugun beharrezkoa dela, bai teknikoki bai logikoki, "udal epe bakoitzaren lehen urteko lehen hiruhilekoan" dioen espresioaren ordez "udal agintealdi bakoitzaren bigarren urteko lehen seihilekoan" espresioa erabiltzea, Bilzarreko Erregistroan 2001eko apirilaren 3an aldaketa hori aurreikusten duen lege proposamen bat aurkeztu izanak aldaketa hori egin behar izatetik salbuesten du talde hau, aldaketa hori egitearekin ados badago ere, logikoa denez.

Azkenik, adierazi beharrezkoa da lege proposamen gisa aurkezten den testuak nabarmenki hobetzen duela Nafarroako Gobernuak igorritako lege proiektua, zeinaren bidez ezartzen baita toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa zein den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian. Proiektu hori Nafarroako Parlamentuak bazter utzi zuen martxoan. Hobetzen du kopuruei dagokienez, gobernuak ezarritako kopuruei 2004ra arte urtero gutxienez 1.500 milioi pezeta gehitzen baitie —eta, aldi berean, ezartzen du indarraldia osatzen duten urteetan zenbatekoak igoko direla foru dirubilketa gehitzea espero den ehuneko berean, eta inoiz ere ez KPIren gehikuntza baino neurri txikiagoan—, eta kualitatiboki ere bai, izan ere, lege baten bitartez ezartzen da nahitaezkoa dela 2004tik aurrera toki entitateak finantzatzeko modu iraunkorra ezarriko duen toki itun batera iritea, hain zuzen ere, entitate horien arduradunek eta herritarrek ez dezaten ziurgabetasunaren eragin negatiboa jasan aurreikuspen ekonomiko eta sozialak egitean, eta XXI. mendeko administrazioarentzat eskumen-banaketa berria taxutu dezan.

I. KAPITULUA

Zuzkidura osoa eta gaurkotzea

1. artikulua. Fondoaren zuzkidura.

2002ko ekitaldian, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondorako guztira 26.653.551.000 pezetako zuzkidura ezartzen da; kopuru hori lortzen da 2001eko ekitaldiko kopurua Foru Ogasunaren tributu bidezko dirusarrerak, Estatuko karga orokorretarako ekarpena kendu ondoren, igotzen diren ehuneko berean —ezin izanen da urteko K.P.I. baino baxuagoa izan—igoz. Gehitu egin behar da sortzeko den berariazko fondoko 1.500.000.000 pezetako zuzkidura.

2. artikulua. Fondoaren banaketa.

2001eko ekitaldiko zuzkidura:

I. Transferentzia arruntak: 16.916.502.000 pezeta.

II. Kapital transferentziak 6.696.261.000 pezeta.

III. Bestelako laguntzak:

A. Iruñeko Udalari, Hiriburutza Agiriagatik: 138.691.000 pezeta.

B. Nafarroako gainerako udalei: 872.097.000 pezeta.

D. Berariazko fondoak

C. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 30.000.000 pezeta.

Guztira: 26.653.551.000 pezeta.

Kopuru horiek igoko dira Foru Ogasunaren tributu bidezko dirusarrerak, Estatuko karga orokorretarako ekarpena kendu ondoren, igotzen diren ehuneko berean —ezin izanen da urteko K.P.I. baino baxuagoa izan—. Gehitu egin behar da sortzeko den berariazko fondoko 1.500.000.000 pezetako zuzkidura. Laguntza berrien atalekoa da hori. Kapital transferentziak salbuetsirik daude hemen aipaturikoaz, eta horien zehaztapena hurrengo artikuluan ezartzen da.

3. artikulua. Aurrekontuko kontsignazioa.

2002tik 2004rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren kontsignazioa transferentzia arruntetan, kapital transferentzietan eta bestelako laguntzetan banatuko da.

Kapital transferentzietan dagokien kontsignazioa 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ezarritakoa izanen da.

2004. urteko kopurua lortuko da 2003ko ekitaldiko kopurua Foru Ogasunaren tributu bidezko dirusarrerak igotzen diren ehuneko berean igoz, Estatuko karga orokorretarako ekarpena kendu ondoren. Igoera ez da izanen urteko K.P.I. baino baxuagoa.

2003 eta 2004. urteetarako transferentzia arruntetarako eta bestelako laguntzetarako dirutza izanen da kontzeptu horietarako 2002. urterako aurreikusitakoa, eta horri gehituko zaio Foru Komunitateko tributu bidezko dirusarrerei urte bakoitzerako aurreikusten zaien hazkuntzaren arabera kopurua, zeina, gutxienez ere, Nafarroako Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera izanen baita betiere.

II. KAPITULUA

Transferentzia arrunten asignazioa

4. artikulua. Transferentzia arrunten hasierako asignazioa Iruñeko Udalarentzat.

Hasiera batean Iruñeko Udalarari dirutza hau asignatuko zaio: 2. artikuluko I. atalean aurreikusitako zuzkidurari udal horrek Nafarroako populazio osoari buruz duen biztanle portzentajea aplikatzen sortzen dena.

5. artikulua. Gainerako udalen artean banatuko den dirutza.

2. artikuluko I. idatz-zatikoa dirutza osoa, Iruñerako asignazioa kendu ondoren, gehi III. Idatz-zatikoa C letran aurreikusitako zuzkidura eta 2. artikuluko berariazko fondorako kontsignaturiko kopurua hasiera batean Nafarroako gainerako udalen artean banatuko da beren banaketa indize ponderatuarekiko proportzio zuzenean.

6. artikulua. Gainerako udaletarako hasierako asignazioa.

Udal bakoitzerako hasierako asignazioa kalkulatzeko, banatuko den dirutzari udal bakoitzerako banaketa-indize ponderatua aplikatuko zaio.

Banaketa-indize ponderatua, berriz, gastu premien eta ahalmen fiskalaren indizeen arteko diferentzia kalkulatuaz lortzen da, honako urrats hauek eginez:

a) Gastu premien indizea gastu premiaren bost aldagai adierazlearen konbinazio linealaren bidez lortzen da, haietako bakoitzak gastu horren azalpenak emateko duen ahalmenaren arabera ponderaturik.

Erabilitako aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoa Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

Hau da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatiaren batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.

- Udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoaren populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoaren populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuruak Nafarroa

osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuen kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko entitate banakatuen kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuen kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea.

b) Ahalmen fiskalaren indizea lortzeko, udalen ahalmen fiskal eta ondare ahalmenaren adierazgarri diren lau aldagaien konbinazio lineala erabiliko da, urte eredu baterako aldagai bakoitzari dagokion dirubilketak lau dirusarrera moten dirubilketen kopuru osoari buruz duen pisuaren arabera ponderaturik. Erabilikobdiren aldagaiak honako hauek dira:

- Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doitu baturari buruz egiten duen portzentajea. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.

- Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren eskubide likidatu baturari buruz egiten duen portzentajea.

- Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastrala Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan, kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

- Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoaren gaineko zergak Nafarroa osoan (Iruña alde batera utzirik) zerga horren ondorioz egiten den guztizko dirubilketari buruz egiten duen portzentajea, udal gaitz gaitzak kontuan hartu gabe, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

c) Gastu premien indizeari ahalmen fiskalaren indizea (0,3135 faktoreaz ponderaturik) kenduz lortzen da udal bakoitzarentzako banaketa-indizea, honako formula honen arabera:

$$\text{FTC} = 0,9206 \times \text{PPOB} + 0,2118 \times \text{PMA65} + 0,2964 \times \text{PURB} + 0,0226 \times \text{PNDISEM} + 0,0051 \times \text{PENTSING} - 0,1801 \times \text{CTU} - 0,0282 \times \text{CTR} -$$

0,0717 x IAE – 0,0753 x IVTM-0,1012 x VCC

Non hau ulertu behar den:

- FTC udal bakoitzaren banaketa-indizea da.
- PPOB udal bakoitzaren populazioak Nafarroako populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.
- PURB Udal bakoitzaren hirilurraren azalera netoak Nafarroa osoko hirilurren azalera osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da. Hauxe da hirilurraren azalera netoa: planoaren araberako zabaleraren (azalera grafikoaren) eta lurzatie batura gisa duen zabaleraren (azalera alfanumerikoaren) arteko diferentziaren ondoriozkoa.
- PMA65 Udal bakoitzeko 65 urtetik gorakoen populazioak Nafarroa osoko 65 urtetik gorakoen populazio osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.
- PNDISEM Udal bakoitzean hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuak kopuruak Nafarroa osoan hirigunetik kanpo populazioa duten entitate banakatuak kopuru osoari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.
- PENTSING Udal bakoitzeko entitate banakatuak kopuruak Nafarroa osoko entitate banakatuak kopuruari buruz (Iruña alde batera utzirik) egiten duen portzentajea da.
- CTU Udal bakoitzeko Hirilur Kontribuzioaren likidazio oinarri doituak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarri doituak baturari buruz egiten duen portzentajea da. Oinarriak koefiziente zuzentzaile baten bidez doitzen dira merkatu balioetara, balioak handitzen dituen merkatu baliotik urruntzen diren heinean.
- CTR Udal bakoitzeko Landalur Kontribuzioaren likidazio oinarriak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) tributu horren likidazio oinarrien baturari buruz egiten duen portzentajea da.
- IVTM Udal bakoitzeko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren dirubilletak Nafarroa osorako (Iruña alde batera utzirik) zerga horren guztizko dirubilletari buruz egiten duen portzentajea da.
- VCC Udal bakoitzeko herrilurraren balio katastralak Nafarroa osoko (Iruña alde batera utzirik) balio horien baturari buruz egiten duen portzentajea da. Kontzejuak beren mugapean dituzten udalen kasuan kontzejuetan ez dauden herrilurren balioa bakarrik hartuko da kontuan.

• IAE Udal bakoitzeko jarduera ekonomikoen gaineko zergak Nafarroa osoan zerga horrek izandako guztizko dirubilletari buruz egiten duen portzentajea da, udal gainkargak kontuan hartu gabe, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legea betez Nafarroako Gobernuak eginiko erregistroaren arabera.

d) Aurreko idatz-zatian lortutako banaketa indizeak populazioaren tamainaren arabera kalkulatu den faktore zuzentzaile batez ponderatuko dira; hain zuzen ere, unitatearen eta populazioa 0,00002 faktorearekin biderkatuz lortutako emaitzaren batura izanen da faktore zuzentzaile hori udal bakoitzerako. Udalen batean ateratzen den banaketa indizea negatiboa baldin bada, zero balioa emanen zaio, eta banaketa indizeak gainerrako udal bakoitzeko birkalkulatuko dira, halako moduan non horien guztien batura unitatea izanen den. Banaketa indize ponderatu horixe aplikatuko zaio banatu beharreko kopuruari, zeina 5. artikuluari jarraituz kalkulatu baita, udal bakoitzari hasiera batean dagokion asignazioa zehazteko.

7. artikulua. Berariazko fondoaren asignazioa.

Udal bakoitzerako (Iruña izan ezik) berariazko fondoaren asignazioa honako irizpide hauei jarraituz eta horien araberako formula bat aplikatuz kalkulatu da. Formula hori 6 hilabeteko epean onetsi behar da, Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epean igorritako lege proiektu bidez. Bi kasu horietan, lege honek indarra hartzen duenetik kontaktzen hasiko da.

1.- Udalek eskueran lurzorua edukitzea babes ofizialeko etxebizitzetarako (zuzeneko proportzioa).

2. Etxebizitza hutsak Nafarroako etxebizitza guztien gain (alderantzizko proportzioa).

3. Ospitaletarainoko distantzia kilometrotan (zuzeneko proportzioa).

4. Batxilergoko institutueterainoko eta Nafarroako unibertsitateetarako distantzia kilometrotan (zuzeneko proportzioa).

5. 0-3 urte bitarteko haur hezkuntzako modulu kopurua (zuzeneko proportzioa).

6. Etorrinei buruzko plan integralak.

7. Mankomunaturiko zerbitzuen eta administrazio zerbitzuen bategitea, bategite horrek ukituriko biztanle-kopuruaren arabera.

8. artikulua. Bermearen aplikazioa eta udal bakoitzeko behin betiko asignazioaren kalkulua.

1. Udal batek transferentzia arrunten kontzeptuan toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoa-

ren tributuetan parte hartzeko fondotik 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontualdian jasoko duen dirutza ez da sekula izanen 2000. urteko behin-behineko banaketa ezartzen duen Toki Administrazio-ko kontseilariaren ekainaren 28ko 117/2000 Foru Aginduaren arabera kontzeptu horretan jasotako dirutza baino txikiagoa.

2. Iruñeko Udalari 2002, 2003 eta 2004an jasotako diru kopurua bermatuko zaio, aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraituz.

Hiriburutza Agiriaren kontzeptua araubide hori emateari buruzko abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legean ezarritakoaren arabera izanen da.

3. 4, 5 eta 6. artikulua aplikatuz iristen ez direnentzat berme hori efektiboa izan dadin, behar diren kopuruak kenduko dira bermatu zaizkien kopuruak gainditzen dituztenak lortu dituzten udalei hasiera batean zegozkien kopuruetatik, dagokien bermearen gehikuntzarekiko proportzionalki.

9. artikulua. Kontzejuentzako hasierako asignazioa.

Beren mugapean kontzejuak dituzten udalen kasuan, aurreko artikulua arabera kalkulatuako parte-hartzeari kontzejuen artean banatzeko zati bat kenduko zaio. Entitate hauen hasierako parte-hartzea biderketa honen bidez lortuko da: udalaren zuzkidura bider % 30 bider kontzejuko biztanleek udaleko populazio osoari buruz egiten duten proportzioa. Geratzen den dirutza da udal bakoitzaren hasierako asignazioa.

10. artikulua. Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako bermearen aplikazioa eta behin betiko asignazioaren kalkulua.

1. Kontzejuak eta beren udalak transferentzia arrunten kontzeptuan toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontualdian jasoko duten dirutza ez da sekula izanen 2000. urterako jasotakoa baino txikiagoa.

2. Kanpo geratzen dira 1 zenbakian ezarritakotik, Toki Administrazio kontseilariak urriaren 13an emandako 97/1997 Foru Aginduaren arabera, eskola unitateen aldagaiarengatik 1997an transferentzia arrunten fondo orokorretik parte bat jaso zuten kontzejuak. Horiei aipatu zenbakian adierazitako gutxieneko zenbatekotik kontzeptu horrenatik jasotakoa kenduko zaie. Azken zenbateko hori bere mugapean kontzejuak dituen udalak 2000. urtean jasotakoari erantsiko zaio bermearen zenbatekoa finkatzeko.

3. Berme hori erabilgarri egiteko, kontzejuei eta bere mugapean kontzejuak dituen udalari, banaketa-formula aplikatuz lortzen ez badute, 8.

artikuluaren arabera hasiera batean izendatutakotik behar dena kenduko zaie bermatutakoak baino zenbateko handiagoak lortzen dituzten udal bereko entitateei, beren bermeari buruz duten gehikuntzaren proportzio zuzenean.

11. artikulua. Erabilitako aldagaiak.

1. Nafarroako udalei banaketan dagokiena kalkulatzeko premiazko aldagaien balioak lortzeko, foru lege honen eranskinean jasotako iturriak erabiliko dira.

Aldagai guztien erreferentzia urtea hau izanen da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak dauzkana. Erreferentzia urteko daturik ez bada, dauden azken urtekoa hartuko da.

2. Artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren datuzat hartzen da Toki Administrazio-ko Departamentuan Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen arabera aurkeztu behar zen azken ekitaldiko kontuen espedientetik lortzen dena, edo, bestela, ekitaldi horrextako aurrekontuaren likidazio espedientetik lortua, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 227.2 artikuluan eta aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan aipatu foru legea garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko hori ez baldin bada eskuratu, eskura den azken datua eguneratuko da, ehuneko 10eko urteko tasa aplikatuz. Aurreko ekitaldiei buruzko daturik ez badago, Nafarroako per capita datu handienaren arabera kalkulatu da, populazio aldagaiari jarraikiz.

3. Kontzejuei dagokien zatia kalkulatzeko erreferentzia urtetzat honako hau hartuko da: banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean Estatistika Institutu Nazionalak bai udalen populazioaren estatistikaren datu ofizialak bai Nafarroako Estatistika Institutuak kontzejuen populazioaren estatistikaren datuak dauzkana, bi-biak urte berari buruzkoak betiere.

4. Aurreko zenbakietan ezarritakoagatik ere, banaketaren aldagaietan eragina duten udal edo kontzejuen bereizketa edo anxio prozesuak geratzen direnean, aldagaien zenbatekoa berriro kalkulatu da banaketa egiten denean duten egoera administratibora egokitzeko, baldin eta egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez bada.

12. artikulua. Ordainketa

1. Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publiko-ko tributuetan parte hartzeko fondoko transferentzia arrunten diru-kopuruak lau alditan ordainduko

dira ekitaldi bakoitzean, hiru hileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, hain zuzen ere.

2. Lehenengo bi ordainketek aurreko ekitaldian behin betiko harturikoaren ehuneko 25 eginen dute.

3. Hirugarren ordainketan toki entitate bakoitzari dagokion urteko azkeneko asignazioa kalkulatu da, eta aurreko ordainketei erantsirik asignazio horren % 75 osatu arteko kopurua ordainduko. Eta gelditzen dena laugarren hiru hilekoa bukatzerako ordainduko da.

4. Udalen eta haien mugapean dauden kontzejuen arteko hitzarmen sinaturik baldin bada, entitate horiei pagatzen zaiena sinatutako hitzarmenean ageri den moduan egiten ahal da, banaketa-formularen aplikazioaren arabera entitate bakoitzari hasieratik dagokiona galarazi gabe.

III. KAPITULUA

Kapital transferentzien asignazioa

13. artikulua. Kapital transferentzietarako partearen banaketa.

Kapital transferentzietarako partearen zenbatekoa 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duten xedapenetan xedaturikoaren arabera banatuko da.

IV. KAPITULUA

Gainerako laguntzen asignazioa

14. artikulua. Gainerako laguntzen banaketa.

1. Iruñeko Udalarik "Iruñeko Hiriburutza Agiria" delakoagatik eman beharrekoari dagokionez, beste laguntzen partearen zenbatekoa agiri hori ematen duen abenduaren 2ko 16/97 Foru Legean xedaturikoaren arabera arautuko da.

2. Nafarroako gainerako udalei eman beharrekoa foru lege honetako II. kapituluaren ezarritakoari jarraituz banatu eta ordainduko da.

3. Berriazko fondoari eman beharrekoa foru lege honetako II. kapituluaren ezarritakoari jarraituz banatu eta ordainduko da.

4. Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioari eman beharrekoa transferentzia arruntentzat foru lege honen 11. artikuluan ezarritako modu berebean ordainduko da.

V. KAPITULUA

Toki ituna

15. artikulua.

Indarra duen finantzazio-bidea ordeztzeko, Nafarroako Gobernuak, 2004ko urtarrilaren 1a baino lehen, toki finantziatorako sistema bat eta foru administrazioaren eta toki administrazioen arteko eskumenen banaketa zehaztuko dituen toki itunari buruzko lege proiektua bidaliko du.

16. artikulua.

Toki itunaren batzorde zuzentzailea eratu da, Parlamentuko Talde bakoitzaren ordezkari batek eta Nafarroako Gobernuak beste batek osaturik. Kide kopuruari dagokionez, bat etorriko da talde kopuruarekin, nahiz eta horietako bi Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioak proposatuko dituen.

Haien eginkizunek toki itunaren proposamena prestatzea izanen dute helburu, ondoren gobernuari igortzeko, Nafarroako Parlamentuan izapida dezan, aurreko lerrokan ezarri moduan. Lan hori 2003ko urtarrilaren 1a baino lehen bukatu beharko dute.

Xedapen gehigarria

1.- Toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren 2001eko transferentzia arrunten banaketak behin betiko bihurtzen dira.

2.- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuaren aurrean aurkeztuko du toki itunaren proposamena, 2002-2004rako, Parlamentuko taldeekin eta Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin batera, toki entitateek bereganatu beharreko eskumenak eta horiek betetzeko baliabide ekonomikoen zuzkidura aztertu eta onetsi asmoz.

3.- 7. artikuluan aipatutako lege proiektua presako prozeduraren bidez izapidatuko da.

Azken xedapena

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legeko 123. artikulua aldatzeko legea onetsi ondoko hilabetean.

ERANSKINA

Banaketa-formulan aplikatutako aldagaiak eta iturriak

1. Udal bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarilaren 1a erreferentziatzat harturik.

2. Kontzeju bakoitzeko populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarilaren 1a erreferentziatzat harturik.

3. Udal bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioa. Estatistika Institutu Nazionalak emana, urte bakoitzaren urtarilaren 1a erreferentziatzat harturik.

4. Hirilur azalera netoa. Planoan agertzen den azalaren (azalera grafikoaren) eta lurzati batura gisa duenaren arteko diferentzia (azalera alfanumerikoa). Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak emana udalen populazioen erreferentzia urte bererako.

5. Entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

6. Populazioa herrigunetik kanpoan duten entitate banakatutzat hartzen diren populazio-guneen kopurua. Estatistika Institutu Nazionalak emana.

7. Hirilur Kontribuzio Doituaren Likidazio Oinarria. Honako hau da: udal bakoitzeko Hirilur Kon-

tribuzioaren Likidazio Oinarria bider merkatuko balioetara doitzeko koefizientea. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu biak, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

8. Udal bakoitzaren Landalur Kontribuzioaren Likidazio Oinarria. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu, udalen populaziorako erabilitako erreferentzia urte berari buruz.

9. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zergaren eskubide likidatuak. Toki Administrazio Departamentura igorritako udaleko kontabilitate likidazioetatik lortzen da. Igorri ez baldin badira, foru lege honen 10. artikuluko 2. puntuan ezarritako irizpidearen arabera kalkulatu da.

10. Herrilurraren balio katastrala. Udaletako populazioarentzako erreferentzia urte berean udal bakoitzaren herrilurrek duten balio katastrala da. Beren mugapean kontzejuak dituzten udaletako kontzejuen herrilurrak kanpo geratzen dira. Nafarroako Gobernu Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du, eta horretarako datuak Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro fiskaletik hartzen ditu.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko Lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko Lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak honako mozio hau Parlamentuko Osoko Bilkuran izapida dadila eskatzen du:

Zioen azalpena

Espainiako Estatuko gobernuak berriki Errege Lege Dekretu bat onetsi du, martxoaren 2koa, Lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzkoa, enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko.

Alabaina, gure iritziz, eta baita zenbait sindikaturen iritziz ere, erreforma hori "beste urrats bat da lan arloa araugabetzeranzko eta langileen eskubideak murrizteranzko bidean".

Erreforma hori izapidatzeko lege dekretuaren bidea, zeina, teorikoki, aparteko presako kasuetarako erreserbatua baitago, erabiltzeak, lege proiektuetan normala den parlamentuaren esku-hartzea.

Baina arazoa ez da forma bakarrik; funtsa ere bada. Izan ere, erreforma honen bidez lan arloko legedian zenbait funtsezko aldaketa egiten dira:

1. Lanaldi partzialeko kontratuaren malgutzea areagotzen du.

Kontratua lanaldi partzialekoa dela jo ahal izateko kontrataturiko orduen gehieneko kopurua (konparatu ahal den lanaldi osoko langile batek dituenen %100erainokoa, ia) ezabatu egiten da; lan-orduen banaketaren malgutasuna handitu egiten da, eta, era berean, lanaldi partzialeko kontratu mugagabeak baldintzatzen dituen ordu osagarrien araubidea malgutzen da.

2. Hemendik aurrera sinatuko diren aldi baterako kontratu batzuetarako kalte-ordain guztiz eskasa ezartzen da.

Lan eginiko urte bakoitzeko 8 soldata-eguneko kalte-ordaina ezartzen da, bitartekotza, laneratze eta prestakuntza kontratuak izan ezik, zeinek langile asko ukitzen baitituzte.

3. "Kontratazio mugagabea sustatzeko" kontratuak uki ditzakeen langile-kolektiboen kopurua handitu egiten da.

Kolektibo horietarako (16tik 30 urtera bitarteko gazteak, enplegu-eskatzailerak gisa 6 hilabete dararamaten minusbaliatuak, 45 urtez gorakoak eta emakume langabetuak, behar baino ordezkari baxuagoa duten lanbideetan), bidegabeko irazpen nagatik jasotzeko den kalte-ordainaren zenbatekoa 33 soldata-eguneko izanen da lan eginiko urte bakoitzeko, eta horren muga 24 hileko solda-

ta izanen da, 45 soldata-eguneko zenbatekoa eta 42 hileko soldatako muga izan beharrean.

4. Aldi baterako kontratu behin-behinekoa malgutu egiten da.

5. Prestakuntza kontratua sinatzeko adin-mugaren salbuespenak ugaritu egiten dira.

Lehen 16tik 21 urtera bitarteko langileentzat eta pertsona minusbaliatuentzat baizik ez zen kontratu hau hedatu egin da etorkinei aplikatzeko, baldin eta euren lan-baimenaren indarraldia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta, halaber, langabeturik 3 urte baino gehiago daramatzatenei, gizarteaz baztertuak direnei eta tailer-eskolen, lanbide-etxeen eta enplegu-tailerren programetan sartzen diren langabetuei ere aplikatzeko.

6. Administrazio publikoan aldi baterako kontratu-mota berri bat ezartzen da: laneratze-kontratua.

7. Iraizpen-kausa objektibo berri bat gehitzen da.

8. Lan egiteko gehieneko adin-mugari buruzko xedapena indargabetzen da.

10. Enpresentzako balizko hobariak gehitzen dira.

Europako batez besteko langabezia-tasa baino handiagoa izateaz gain, lan-arloan arazo handiak dauzkagu aldi baterako kontratuen kopurua eta prekaritate-tasa oso handiak direlako, eta enpresetan gero eta abusu-egoera gehiago daudelako.

Hala eta guztiz ere, onetsitako erreformak laneko malgutasuna areagotzen du, aldi baterako kontratatzeke aukerak ugaritzen ditu, langile-

kolektibo batzuen irazpena de facto merketzen du, eta, bidegabeki, gizarte segurantzarako kotizazioak gehitzen ditu. Halaber, negoziazio kolektiboaren bidez lana nahitaez utzi beharreko adin bat ezartzeko aukera kentzen du erreformak, erretiratzeko adina atzeratzea bultzatzearen ildotik lehen urratsa dirudiena izanez.

Hori guztia dela-eta, Biltzarraren Osoko Bilkuran honako erabaki proposamen hauek eztabaidatu eta bozka daitezela proposatzen dut:

Erabaki proposamenak:

1. Enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko martxoaren 2ko 5/2001 Errege Lege Dekretu bidez eginiko lan-arloko erreformaren aurka dagoela jakinaraztea Gobernu zentralari.

2. Gobernu zentrala premiatzea aipaturiko Errege Lege Dekretua erretira dezan eta negoziazio kolektiboko prozesu deszentralizatu bati ekin diezaion. Prozesu horretan ordezkaritza duten sindikatu guztiek parte hartu beharko dute.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du lan arloko erreforma horretako neurriak eta horiek Nafarroan aplikatzearen ondorioak sindikatu guztiekin batera aztertzeke, eta horretan guztian oinarriturik plan osagarri bat eginen du, erreforma horren alderdirik negatiboenak leuntzeke eta hori Nafarroan abiaraztearen eragina ikuspegi sozial eta ekonomikotik hobetzeko.

Iruñean, 2001eko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituziokontra-kotasuneko errekurtsioa jarri izanarekin Bardeako natur parkea handitzearen aurka

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituziokontra-kotasuneko errekurtsioa jarri izanarekin Bardeako natur parkea handitzearen aurka".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubio andreak honako mozio hau aurkeztu du, Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Bardeako lurraldearen zati bat tiro- eta bonbardaketa-poligono gisa erabiltzearen Defentsa Ministerioari alokatzeko kontratuaren amaiera-eguna aurki iritsiko dela, Nafarroako Parlamentuak Natur Parkea instalazio militarrek kokaturik dauden lurraldera hedatzeko harturiko erabakiaren aurka konstituziokontarakotasun errekurtsioa aurkezte erabaki du Ministroen Kontseiluak. Nafarroako Parlamentuak defendatu egin behar du berak harturiko erabakia, eta ordezkatzeko dituen bizilagunen segurtasun eta interesen alde zaindu behar du, bizilagun horiek Estatuaren eta, zehazkiago, Defentsa Ministerioaren interesen menpean deslari utzi gabe.

Ministroen Kontseiluak aurkezturiko errekurtsioaren aurkako jarrera, koherentzia politikoa

hutsagatik agertu behar dute Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak.

Erabaki proposamena:

1.- Bardeako natur parkea gaur egun tiro-poligonoa kokaturik dagoen lurraldeetara hedatzeko harturiko erabakiaren kontra Ministroen Kontseiluak aurkezte erabaki duen konstituziokontarakotasun errekurtsioaren aurka dagoela agertu nahi du Nafarroako Parlamentuak.

2.- Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuaren erabakiak eta tiro-poligonoak kalteturiko bizilagunak defendatzeko aurkako jarrera bera izan dezan.

3.- Nafarroako Parlamentuak Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari bidaliko dizkie erabakitako proposamenak, eta gogorazten die Bardeako lurraldearen zati bat tiro- eta bonbardaketa-poligonorako alokatzeko kontratua 2001eko ekainaren 9an bukatutzat jotzearen aldeko jarrera duela.

Tuteran, 2001eko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluen babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran izapida dadin:

Turismo Eskola (INET) "ikasketa turistikoa espezializatuetarako estatuz bestelako ikastetxe" gisa kalifikatua izan zen (1981eko abuztuaren 13ko Estatu Aldizkari Ofiziala). Kalifikazio horrek baimena ematen zion TEAT (turismo enpresa eta jardueretako teknikari) ikasketak Madrilgo Turismo Eskola Ofizialari atxikirik irakasteko.

259/1996 Errege Dekretuaren ondorioz, zeinak ikastetxe pribatu guztiak 2001eko urria baino lehenago unibertsitate pribatu bati atxikitzea behartzen baitzuten, Turismo Eskolak (INETek) lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen, 1998ko ekainaren 24an, Urrutiko Hezkuntzarako Uniber-

tsitate Nazionalarekin (UNEDekin, hain zuzen). Hitzarmen harekin jorraturiko bideak behin betiko atxikipena izan behar zuen xede. Hitzarmenaren bidez, aipaturiko ikastetxeari DEAT (turismo enpresa eta jardueretan kiplotatua) ikasketak behin-behinekoz irakasteko baimena ematen zitzaion; hau da, behin betikoz atxiki bitartean.

Behin-behineko egoera horrek, aurreikuspenen arabera, hiru urte iraun behar zuen, baina badirudi beste hiru urtez luzatuko dela.

Turismoko titulua dutenen lehen lanposturako eskariak Turismo Eskolako (INETeko) lan-poltsaren bitartez bideratzen dira Nafarroan, eta oso bakanak dira hedabideetan agertzen direnak. Horregatik, iduriko luke eskari hori existitzen ez dela edo oso urria dela, nahiz eta, errealtatean, garrantzitsua izan eta hazten ari den.

Azken ikasturteetan zehar, urtero 50 lan-eskaintza inguru bideratu dira Turismo Eskolako (INETeko) lan-poltsara, eta, zantzu guztien arabera, pentsatzekoa da aurtengoan kopuru hori alde handiz gaudituko dela, kontuan harturik azaroan eta abenduan, alegia, profesional-eskari apala izan ohi duten bi hilabetetan, eskolara 15 pertsonarentzako lan-eskaintzak helarazi dituztela.

INET Turismo Eskolak Iruñean irakasten dituen DEAT (turismo enpresa eta jardueretan kiplotatua) ikasketetan –gure komunitatean ofizialak diren bakarrak dira– izen emandako ikasle-kopuruak atzerakada nabarmena izan du azken urteotan. Denbora-epe nahiko laburrean, zenbait faktore uztartu dira beherakada hori eragiteko:

- Ikasteko adina duen populazioaren bilakaerak izen emateko eskaeren beherakada eragin du ikasketa guztietan. Turismo Eskolan, beherakada nabarmenagoa izan da; izan ere, berezko beherakadari gehitu beharrekoa da aurreko urteetan beste ikasketa batzuetan tokirik lortzen ez zutenek "errebote" gisa egiten zituzten eskaerak desagertzearen eragina.

- LOGSEko batxilergo berritik abiatuta ikasle-ta hauek egiten hasi nahi dutenei selektibitateko proba gaindi dezaten eskatzen hasi izanak aurtengoan izan du eragina lehenengo aldiz, eta horrek hein handian areagotu du lehen mailarako izangaien beherakada.

- Ikasketek ikasleentzat duten kostu handi samarrak aski uxagarri gertatzen da haientzat. Ikastetxearen ordainsaria gaur egun 386.500 pezetakoa da ikasturte osoaren truke, eta, horri, UNEDen tasa gehitu behar zaio, 29.390 pezetakoa.

Gaur egun, 30 ikaslek izen eman dute lehen mailan, eta horietatik 4 errepikatzaileak dira. Ikas-

le-kopuru horrek ez du betetzen gaur egun jadanik sektoreak eskatzen duen toki-kopurua, eta are gutxiago etorkizun hurbilean.

Turismoaren sektorea da emakumeak erantzukizuneko postuetara neurririk handiengan helarazten dituztenetako bat. Iruñeko zenbait hotel garrantzitsutan, emakumeak dira bertako zuzendari. Beste hainbeste esan liteke bidaia-agentziei eta bestelako turismo-enpresei buruz.

Gaur egun, Turismo Eskolan (INETen) matrikulaturiko ikasleen % 85 emakumezkoak dira, eta ehuneko hori beretsua izan da eskolaren historian zehar.

Gaur egun, Turismo ikasketak egiten dituzten ikasleek lan-eskaintza ugari izaten dituzte ikasketak amaitzean, eta, horregatik, aparteko arazorik gabe laneratzeko aukera izan ohi dute.

Turismo Eskola-INETek denbora darama finantza-egoera egonkorra eduki ahal izateko itun bat eskatzen. Horrela bermatu nahi du bere funtzionamendua bera eta baita behar adinako ikasle-kopuruak ikasketa hauek hautatzea ere, epe luzean turismoaren sektoreak profesionalak hartzeko eginen duen eskariari erantzun ahal izateko.

Horren truke eskaintzen ari den ordain zilegia da Nafarroako Gobernuak eta enplegu-arloan interes berezia daukaten gizarte-eragileek parte hartu ahal izatea oraindik sortzeke dagoen eta guk Irakaskuntza-Kontseilua deitu dugun erakunde batean. Erakunde horri eginkizun garrantzitsuak esleitzen zaizkio ikastetxearen kontrolari dagokionez. Aurreko Turismo kontseilari Bultó jaunak onartu egin zuen eskaintza hori, nahiz eta hura ordeztu zuen taldeak ez duen hori gauzatu.

Hiru urteko eperako eskatzen da ituna. Epe horrek barnean hartuko litzuke 2001-2002, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteak, eta UNEDen eta INET Turismo Eskolaren arteko lankidetzak-hitzarmenaren indarraldiarekin bat etorriko litzateke. Epe horren amaieran, unibertsitate eskola gisa unibertsitate publiko bati atxikia beharko du egon.

130 ikasle izanik, horiek ordainduriko prezioa urteko 100.000 pezeta (UNEDeko tasak barne) ingurukoa izatea eta eskolak bere kostu guztiei aurre egitea ahalbidetuko lukeen kopurua urteko 60 milioi pezeta ingurukoa litzateke.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau egin dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du sei hilabeteko epean Nafarroako Turismo Eskolarekin itun bat sina dezan, Eskolak finantza-egoera egonkorra izateko

eta, horrela, bai bere funtzionamendua bera eta bai behar adinako ikasle-kopuruak ikasketa hauek hautatzea bermatzeko, modu horretan, epe luzean turismoaren sektoreak profesionalak hartzeko eginen duen eskariari erantzun ahal izateko. Itun horren indarraldiak, gutxienez ere, 2001-2002, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteak hartuko ditu barnean.

2.- Irakaskuntza Kontseilua eratuko da. Era-kunde horri kontrol-eginkizun garrantzitsuak eslei-

tzen zaizkio, eta Nafarroako Gobernuaren nahiz Nafarroako Turismo Eskolaren parte-hartzea izanen du. Turismoaren arloko prestakuntza plan integral bat eginen da, arlo honetako irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta, hortaz, turismo eskola horretan prestatzen diren profesionalen kalitatea hobetzeko.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluen babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren aurrean izapida dadin:

Entzefalopatia espongiiformea, "Belgikako oilaskoen" toxinak, Ingalaterrako sukar aftosoak, kontsumitzaileen sektorean mesfidantza handia sortarazi dute. Kasuotan, kontsolamendu gertatu

behar zaigu egoera horiek nekazaritza-politika zaharrari buruz kontzientzia berri bat –alegia, edozein prezioan produzitzea ezinezkoa dela– sortzeko balio izana. XX. mendearen hasieran sorturiko eta gerra ostean biztanleria elikatzeko sustaturiko politika produkziozale bereizgarriek jadanik balio ez izatea erabateko gordintasunez hautematen eta sufritzen ari gara.

Kostuak murrizteko eta amaierako produkzioa gehitzeko lehia elikagai osasuntsuekin bateragarria ez dela agerian geratu da. Kantitatea ez da kalitatearen kaltetan produzitu behar, eta, hori lortzeko, lehentasuna eman behar diogu gizarterrentagarritasunari elikagai-enpresa eta industri handien emaitza-kontuaren gain. Kontsumitzaileok eskatzen dugu elikagaien kalitateak eta segurtasunak arautu behar dutela merkatu honen funtzionamendua kostu eta prezioen gainetik.

Lehiakorragoa izateko bitarteko guztiak eta produkzio-unitate handiak erabiliz nekazaritza industrializatzearen ondorioa da behi eroen gaitza. Seinale bat da, eta dogmatikoak ohartarazi beharko lituzke zeinen arriskutsua den Estatuaren kontrol zorrotzik gabe uztea merkatua, eta batez ere elikagai-merkatua. Nekazaritza-industriaren sektorean, merkatu askeak kalte larriak eraginen lizkioke kontsumitzaileen osasunari.

Nekazaritza-politikaren arloan iritsi dugun zentzugabekeriaren heinak beharrezko egiten du natura errespetatuko duen nekazaritza ekologikoren aldeko apustua egitea. Hain soluzio arrazionalaren alde txarra prezioen gorakada nabarmena

litzateke, kontsumitzaileak onar lezakeena baino askoz handiagoa. Osasunari kalterik egiten ez dioten elikagaiak kontsumitzaileok ordaintzeko prest gauden prezioan ekoiztu beharra da Europako nekazaritzak pairatzen duen kontraesan askaezina.

“Behi eroen” krisialdiaren ondorioz sektoreak izan duen astinduak guztiz frogatua utzi du nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa modernizatu beharra dagoela. Horixe da, hain zuzen ere, gaur egungo estrategiez guztiz bestelako filosofia izan den duen, kantitatea ez baizik kalitatea lehenetsiko duen eta, ororen gain, elikagaien segurtasuna bermatuko duen nekazaritzari buruzko foru lege bat egitearen zergatia eta xedea.

Nafarroako araudi berriak sektorea berriztatzeari ekin behar dio, eta gizartea elikagai natural, kalitate handiagoko eta seguruagoen alde egiten ari den eskaera berriei erantzuteko Europan nekazaritza- eta abeltzaintza-politika hartzen hasia den ildo berekoa behar du izan.

Gizarte-eskaerari jarraikiz, etorkizuneko legeak kalitatezko elikagaiak produzitu beharra izanen du irizpide gidari. Horrela, jatorriko deiturak, kalitateko markak eta, oro har, "ziurtaturiko" produkzioa —elikagaien kalitaterako institutuak kontrolatuko duena—sustatuko direla eta horiek sistema ekologikoen bidez (ongarri kimiko gutxiago, larre gehiago) lorturikoak izanen direla xedatu beharko da. Era berean, kontsumitzaileari edo ikuskatzaileari elikagai bat nork, non eta nola produzitua den adierazteko segurtasun-kontrolak ugaritu egiten dira.

Laburbilduz, politika zaharkituak aplikatzen jardun gara; politika horiek gizarteak eskatzen dituen

helburuak eragozten dituzte eta haietatik urruntzen dira, eta helburu horiek "gizarte-kontratu" berri baten bidez baizik ez dira lortuko, aipaturiko gizarte-eginkizunak elikagai horiek produzitzen dituzten, landa-ingurunean bizi diren eta naturguneetan jarduten direnei uztartuz.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau proposatu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan. Lege horrek sektorea berriztatzeari, produkzioaren kalitatea kantitatearen orde lehenesteari, jatorriko deiturak indartzeari eta nekazaritzanahiz abeltzaintza-produktu guztietan segurtasun kontrolak gehitzeari ekin beharko dio.

Araudi berriak lehenetsi egiten ditu berriki izandako epidemiak bezalako arriskuei aurrea hartzeari dagozkion gaiak, eta bultzada emanen die teknologiaren, produkzioaren (ureztalurrak handituz) eta ustiategien (bertan gazteek lan egin ahal izateko laguntzak emanez) berritzeari eta natura babestuz landa-ingurunea garatzeari.

Nekazaritza-politika berriaren arrakasta sei eragileren baitan dago (kontsumitzaileak, nekazariak, pentsu-fabrikatzaileak, elikagai-industria, txikizkako merkataritza eta borondate politikoa), eta, horretarako, erantzukizun-banaketa berri bat egitea eta horietako bakoitzak produkzio-prozesu horretan daukan zeregina zehaztea beharrezkoa izanen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Mendillorri IV ikastetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Begonia Errazti Esnal andreak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Mendillorri IV ikastetxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduan mozioak arautzen dituzten 192. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaida dadin:

Zioen azalpena

Berriki, ikasleak ikastetxeetan 2001-2002 ikasturterako aurrematrikulatzeko prozesua bukatu da. Zoritzarrez, zenbait kasutan, D ereduan hasierako eskaintza baino handiagoa izan da eskaria Iruñerrian. Zenbait ikastetxe publikotan, hala nola Mendillorri 4, Txantreako Axular eta Arturo Kampion eta Arrotxapeko Ave Maria ikastetxeetan, eskabideek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eginiko eskaintza gainditu dute. Nafarroako Gobernuari, hain zuzen ere, kezka handiagoa eragiten dio euskarazko ereduaren eskaria gerarazteak guztionak diren baliabide batzuen kudeatzaile gisa duen erantzukizuna betetzen saiatzea baino.

Mendillorri 4ren kasuan, haur hezkuntzako lehen ziklorako eskaintza 75 tokitakoa zen, baina 84 eskabide izan ziren.

Egoera hori ikusirik, bai eskola kontseiluak bai gurasoen elkarteak ikastetxe horretan beste lerro bat ireki eta, aurreikusitako hiruen orde, lau talde era daitezten eginiko eskaerari eutsi diote. Tamalez, orain arte Hezkuntza Departamentuak ez ditu eskaera horiek behar den arretaz aztertu.

Eskaera hori justifikatzeko arrazoi ugari dago:

– Lehenik eta behin, gurasoek euren seme-alabak zein ikastetxetara eraman nahi dituzten erabakitzeak daukaten eskubidea.

– Mendillorri 4 ikastetxean bertan ikasgela hutsak badaudela. Horregatik, borondate politikoa izanez gero, gurasoen eskaera horri inolako ozto-

porik gabe baieztatu erantzuna eman ahalko litzaioke, behar bezalako instalazioak egon badaude eta.

– Ikasgela hori irekitzen bada, ikasgela bakoi-tzeko ikasle-ratioa 21/22koa izanen da: kopuru egoki baino egokiagoa irakaskuntzaren kalitatearen ikuspegitik, eta gastu publiko arrazoizkoa errentagarritasunaren eta gizartearen ikuspegitik.

– Hamar ikasle Mendillorri 2raino mugitu behar izateak arazoak sortzen ditu, hezkuntza-maila horretan bi ikastetxe horietako ikasgelak saturatu eginen direlako, haurrak bi ikastetxetan dauzkaten familien antolaketa oztopatu egiten duelako eta, trafiko handiko errepide batetik ibiltzera behartzearen ondorioz, arriskuak inolako beharrik gabe gehitzen dituelako.

Parlamentuko gure taldearen aburuz, botere publikoek arlo ezberdinetan gizarteak eginiko eskaerei erantzun behar diete, eta ezin dute, oraingo kasu honetan bezala, eurek nahi izanen luketenaren kontra gure komunitateko herritar gero eta gehiagok beraien kontsideratzen duten hizkuntza-eredu batean eskolatzeko eskaera soziala oztopatzeko jarrera hartu.

Horrela, bada, eta kontuan izanik bizitasun handiko auzoa dela, bai bertako biztanleen gaztetasunarengatik bai aurki auzokide berriak egonen direlako (irailean laugarren faseko etxebizitza-sustapenetako giltzak emanen zaizkie), Biltzarrari honako erabaki hau har dezala proposatzen diogu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du Mendillorri IV ikastetxean datorren ikasturtean (2001-2002) ikasgela bat gehiago ireki dezan haur hezkuntzako 1. mailan.

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat Estatuko gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioek 1997an izaniko soldata igoeraren aurka errekurtsioa jarri izanarekin

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat Estatuko gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioek 1997an izaniko soldata igoeraren aurka errekurtsioa jarri izanarekin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dio Osoko Bilkurari:

Nafarroako 1997rako aurrekontuei buruzko Legean, Parlamentuak erabaki zuen funtzionarioen ordainsariak % 2,6 igotzea, 1996-1999rako hitzarmen kolektiboan harturiko konpromisoak betez. Hitzarmen horretan bermatzen zen soldata erreala mantenduko zela, KPIk Nafarroan izandako gorakadaren arabera igoera eginez. Estatuko aurrekontuak eutsi egin zion urte hartan ordainsarien izozteari.

Estatuko gobernuak Asturias eta Euskal Autonomi Erkidegoko aurrekontu-legeen aurka Konstituzio Auzitegian errekurtsioa aurkeztea erabaki zuen; hain zuzen ere, lege horietan ordainsariak igotzea xedatzen zen. Gai hori Nafarroako Foru Komunitateari zegokionean ere eztabaidatu zen, eta bi gobernuen artean zenbait bilera egin ziren. Bilera horien ondorioa izan zen ez zutela Konstituzio Auzitegira joko aurrekontuei buruzko foru lege-

aren aurka, baina hori aplikatzen zuen foru dekretua Auzitegi Nagusian inpugnatuko zutela.

UPNko gobernuak lorpen handia eta PPko Gobernu "adiskideak" emandako tratamendu onaren adierazgarri bailitzan aurkeztu zuen hori, foru legea Konstituzioaren arabera izatea ez baitzuen zalantzan jartzen, eta foru komunitateko funtzio publikoko ordainsariei buruzko araubidearen gain Nafarroak eskumena izatea ez zelako eztabaidatzen. Orduan jadanik Nafarroako Demokraten Elkargunea-CDNk agerian utzi zuen halako planteamendu baten faltsutasun eta zinismoa; izan ere, Nafarroako Auzitegi Nagusia konstituzio-contraktotasuneko auziaren protagonista bihurtzea zuen xede. PPko gobernuaren Ministroen Kontseiluak foru dekretua inpugnatu zuen Nafarroak Estatuaren eskumena urratzen zuelakoan, eta auzi hori Konstituzio Auzitegiari helarazi beharko zion Auzitegi Nagusiak. Horrela, Gobernu zentralak zuzenean ez baizik zeharka inpugnatzen zuen aipaturiko auzitegiaren aurrean, eta Foru Komunitatearen eskumena denbora guztian jartzen zuen auzitan. Bi gobernuak, Estatukoak eta Nafarroakoak, batak bere ekintza eta besteak bere menpekotasuna ezkutuan utzi nahi zituzten, Nafarroako Auzitegi Nagusia foru eskumenaren inpugnatzaile bihurtuz.

Berriro ere, Alderdi Popularraren gobernuak, UPNko Nafarroako Gobernuaren lankidetzak eta konplizitateak, Foru Komunitatearen autonomiari eraso egiten ari zaio, hark dituen eskumenak auzitan jarri eta Nafarroako funtzio publikoaren ordainsariei buruzko politika gobernu zentralak eginikoaren arabera eta ildo berekoa izan dadin saiatuz. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egin behar du hori, Nafarroako Gobernuaren amore emateko jokabidea ikusirik; izan ere, Nafarroako Gobernuak, Nafarroaren autogobernuari eraso egiteko asmo berariazkoa mozorrotzeko saio batean aktiboki parte hartuz, foru eskumenarekiko halako erdeinua justifikatzen ari da.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari honako erabaki hau onetsi dezan proposatzen diogu:

"Nafarroako Parlamentuak adierazi nahi du arbuiatu egiten duela Estatuko gobernuak, Nafarroako Gobernuaren konplizitateak, Foru Komuni-

tateko funtzionarioen ordainsarien 1997ko ekitaldiko igoera inpugnatzea, eta, era berean, amarru bidez jardutea, alegia, aurrekontuei buruzko legea aplikatzeko foru dekretua Nafarroako Auzitegi Nagusian inpugnatuz iritzi publikoari iruzur egitea, hari sinestaraziz auzitegi horrek jo duela Konstituzio Auzitegira, nahiz eta horren jatorria izan Gobernuaren inpugnazioa eta hark Dekretu hori konstituziokontrakoa dela esatea, Estatuarenak diren eskumenak zapaltzen omen dituelako. Triki-

mailu horrek botere judizialarekiko errespetu falta agertzen du, Aznar Lehendakariaren gobernuak funtzio publikoaren arloan Nafarroak duen eskumen eksklusiboa auzitan jartzeko duen asmoa betetzeko tresna gisa erabiltzen baitu, Nafarroako Gobernuak jakinik eta onarturik."

Iruñean, 2001eko apirilaren 17an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Getze-Galarrera doan errepidearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko

Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

N-121 errepidearen bidegurutzetik, Segurtasun Eskolaren parean, Getze-Galarreraino iristen den errepidearen egoera tamalgarria da, bereziki bidezoruari dagokionez, zuloak eta bestelako hondatzeak bata bestearen segidakoak baitira. Errepide hori erabiltzen duten herritarrek berehala konpon dadila eskatzen dute.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Errepide hori konpontzeko ezer egiteko asmorik al dago?

– Baiezkoan, zer denbora-epe igarota?

– Inolako ekintzarik egiteko asmorik ez bada, zer dela-eta?

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Parke teknologikoa deritzanak azkenean izanen duen kokalekuari buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak parke teknologikoa deritzanak azkenean izanen duen kokalekuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeari atxikiriko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzuteko:

Azkenaldi honetan Nafarroako parke teknologikoa Sarriguren aldean behin betiko kokatzeari buruz hedabideetan agerturiko informazioak ikusirik, hauxe jakin nahi da:

1.- Parke teknologikoa Sarrigurenen behin betiko kokatuko da? eta, kasua bada, azken kokalekua zenbat denbora barru zehaztu ahalko dela espero da?

2.- Zergatik aldatu da parke teknologikoaren kokalekua, zeina Donapeako ingurua izanen zela iragarrita baitzegoen?

3.- Kokaleku berriaren gaineko erabakiak, Eguesibarko Udalaren lankidetzeta eta babesa izan al ditu?

4.- Urbanizazio berriak Eguesibarko Udalari ekarriko dizkion kostuak balioetsi al dira? Ekintza

horrek Eguesibarko udal plana aldatzera behartuko luke?

5.- Zer enpresak daukate gaur egun berretsia Parke horretan instalatzeko borondatea, eta, bereziki, zein fasetan dago eta zein urrats eman dira orain arte, parke horretan Energia Berriztagarrien Zentro Teknologiko Nazionala eratzeko?

Iruñean, 2001eko apirilaren 9an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Galdera, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruzkoa, hezkuntza-maila eta hizkuntza-ereduka

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, hezkuntza-maila eta hizkuntza-ereduka, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña

Errazti Esnal andreak honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

2001-2002 ikasturterako aurrematrikulazio-kanpaina amaitu dela-eta, foru parlamentari honek haxe jakin nahi du:

– 2001-2002 ikasturterako aurrematrikulazioari buruzko datuak.

– Matrikulazio-datuak, erkidego osoko ikastetxeak eta hautaturiko hezkuntza-mailak eta hizkuntza-ereduak zehaztuz.

Iruñean, 2001eko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak RTVE ente publikoko kontseilu aholku-emaileak salatutako egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko parlamentari Félix M^a Taberna jaunak honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

RTVEren Nafarroako kontseilu aholku-emaileak, apirilaren 3an egin zuen bilkura arruntean, Nafarroako Gobernuaren eta RTVE ente publikoaren arteko lankidetzaren hitzarmeneko edukiak bete ez izatearen ondoriozko kezka agertu zuen. Aipaturiko ez-betetzeak honako hauexek dira: arratsaldeko lurralde-albistegiak maiz asko programaziotik kanpo uztea; jadanik emandako programa ugari berriro ematea, sarritan gertatu den bezala; eta aste bukaerako albistegia desagertzea.

Horregatik, hauxe jakin nahi da:

– Nafarroako Gobernuak badauka kontseilu aholku-emaileak salaturiko egoeraren berri?

– RTVEk Nafarroan dauzkan arduradunekin elkarrizketarik egin du edo eginen du, hitzarmenari dagozkion ez-betetzeak zuzentzeko?

– Nafarroako Gobernuak betetzen al du hitzarmenean berari dagokiona?

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Berriki, pentsiodunek medikamentuak hein batean ordaintzeari buruz Osasun Ministroak eginitako adierazpen batzuk argitaratu dira.

Ministroak dioenez, farmazi gastuak ukitzen dituen sektoreekin gastu hori kontrolatu eta murrizteko bide bat jorratzen ari dira, eta, pentsiodunek medikamentuak hein batean ordain dezate-lara erabakiko balitz, bide horrek gaixoen errentekin izanen luke zerikusia.

Halaber, Villalobos andreak aipatu du hartzen den erabakia lurraldearteko kontseiluan aurkeztuko dela, Parlamentuan izapidatu aurretik.

Hori horrela, hauxe jakin nahi nuke:

1.- Zer berri du Osasun kontseilariak horri buruz?

2.- Osasun kontseilariaren ustez, medikamentuak hein batean ordaintzeari dagokionez ezer taxu-bidean dago, ala, berriro ere, gizartearen baitako jarrerak ikusteko haztamu-saio bat da?

3.- Zer deritzo Osasun Departamentuak medikamentuak pentsiodunek hein batean ordaintzeari?

4.- Zein izanen da Osasun kontseilariak lurraldearteko kontseiluan izanen duen jarrera eta iritzia, baldin eta aipaturiko egoera aztertzeako asmoz kontseilu horretarako deia egiten bada?

5.- Gaixoen errentaren arabera pentsiodunek medikamentuak hein batean ordain ditzatela onesten bada: zer eragin izanen du Nafarroako herritarrengan?

6.- Kontseilariaren ustez, sistema eraginkorra izanen litzateke farmazi gastua murrizteko, ala kontsumitzaileen sakelean eragin nabarmena izanen lukeen dirubilketarako sistema soil bat litzateke?

7.- Zer eragin izanen luke Konstituzioak eta osasunari buruzko lege orokorrak eta foru legeak herritarrei bermatzen dieten osasunerako eskubi-dean?

Iruñean, 2001eko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erresebatzeari buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko apirilaren 23an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak erresebatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Gizarte Ongizate Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Joan den martxoan, IMSERSOk Nafarroarentzat 5.000 leku erresebatu zituen, adindu eta pentsiodunei zuzenduriko bere opor-programarako.

Postu horiek esleitzeko, IMSERSOk berak ezarritako irizpideak hartzen dira beti kontuan, hala nola adina, dirusarrerak eta aurretik eginiko bidaiak. Ondorioz, postua hautatzeko prozedura irizpide horiek aplikatuz suertatzen den ordenaren arabera izaten da.

Alabaina, Parlamentuko talde honek egiaztatu ahal izan du Nafarroako herri jakin batzuetako adindun eta pentsiodunei postuak esleitu izan zaizkiela argi egon gabe aurrean aipaturiko irizpideak aplikatu diren; beraz, hori egia bada, diskriminazio larria izanen litzateke Nafarroako gainerako adindun eta pentsiodunentzat.

Kalteturiko askok esan dute egoera hori gertatzen dela Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ezartzen den kupoko postu-kopuru zehatz bat erresebatzen duelako, gero horiek banatze-ko.

Hori guztia dela-eta, Parlamentuko gure taldeak honako galdera hauek egin ditu:

1.- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak aurten edo aurreko urteetan ehuneko zehatzik erresebatu al du IMSERSOk ezarritako leku-kopotik? Baiezkoan, adieraz bedi zer urtetan, erresebatutako postuen kopurua eta eskainitako guttizko kopuruaren gain horiek egiten duten ehuneko.

2.- Zein da lekuak erresebatzearen xedea?

3.- Zein irizpideri jarraituz esleitzen dira erresebatu diren lekuak?

Iruñean, 2001eko apirilaren 19an

Eleduna: Joxe Pernando Barrena Arza